



2021/03/08

# 10.000 KM BAIETZ!

## IGANDEAN, MARTXOAK 14, ZATOZ EUSKARAREN ALDEKO ERRONKAN PARTE HARTZERA!

Araba Euskaraz kanpainak euskararen aldeko erronka proposatu du martxoaren 14rako: baietz guztion artean 10.000 kilometro osatu Zumalakarregi etorbidean 09:00etatik 19:00etara.

Haur, gazte eta helduoi zuzendutako ekimena da: Zumalakarregi etorbidea kilometro bateko ibilbidea bihurtuko dugu bakoitzak nahi beste joan-etorri burutu ditzan. Kontrol puntuak anbulatorioan eta Gurutze Gorrian jarriko ditugu eta parte hartzeko alde zuretzat izena eman beharko da:



**izena eman**



### SEGURTASUN NEURRIAK

Bizi dugun egoerara egokitutako ekitaldia izango da. Hortaz, gehienez 4 pertsonako taldeetan parte hartu beharko da, taldeen artean 2 metroko distantzia mantenduz eta musukoarekin une oro.

### LAGUNTZAILEAK BEHAR DITUGU

Ekitaldia behar bezala burutu dezagun, kontrol guneetan eta ibilbidean zehar arituko den laguntzaile taldea osatu behar dugu. Animatu eta izena eman ondorengo formularioan:

**laguntzeko prest nago**



**10.000 km  
baietz!**

ERRONKARAKO KAMISETA TEKNIKOAK  
**ONLINE DENDAN**

eta **Araba Euskaraz Gunean** salgai!  
(Zumalakarregi 38, 01400, Laudio)

